

EUROPOL Hitzarmena: lankidetzza poliziala eta europar gune poliziala

(The EUROPOL Agreement: police co-
operation and European police space)



GOIRIENA LEKUE, Agurtzane

Zuzenbide Naturaleko irakaslea
Euskal Herriko Unibertsitatea
Sarriena auzoa, z/g
48940 Leioa

BIBLID [1137-1951 (2000), 6; 5-16]

1

1999ko urtarrilaren 1ean, europoliza arautzen duen Europol Hitzarmena sartu zen indarrean. Ulegarria da Europar Batasunean gune polizial eta judizial komun bat egotea, baina ez ordea Hitzarmen honek inolako kontrolik ez ezartzea. Konstituzio europar batetik hasi beharko litzateke eraikitzen Europar Batasuna, baina, zoritxarrez, alderantziz suertatzen ari da prozesua, oinarrizko eskubideen europar dokumentu juridikorik ez egonik, hutsune nabarmenak dituelarik sare judizialak. Hau paradoxa.

E

El 1 de enero de 1999 entró en vigor el Tratado Europol, regulador de la europolicía. El deseo de la Unión Europea de contar con un espacio policial y judicial común resulta comprensible, pero no la ausencia de mecanismos de control. Lo ideal sería que la Unión Europea se construyera a partir de una Constitución Europea; el proceso, no obstante, se está desarrollando en el sentido contrario. Ante la falta de un documento jurídico europeo de derechos fundamentales, la red judicial muestra enormes lagunas. Paradojica situación.

Z

Le 1er janvier 1999 est entré en vigueur le Traité Europol, régulateur de l'eupolice. Le désir de l'Union Européenne de compter sur un espace policier et judiciaire commun est compréhensible, mais pas l'absence de mécanismes de contrôle. L'idéal serait que l'Union Européenne se construise à partir d'une Constitution Européenne; le processus, pourtant, est en train de se développer en sens contraire. Devant le manque d'un document juridique européen de droits fondamentaux, le réseau judiciaire montre d'énormes lacunes. Situation paradoxale.

1. **Sarrera.** 2. **Aurrekinak: europar Estatuarteko lankidetzaz. Erroma, Trevi eta Schengen Itunak.** 3. **Europar gune polizial komun baterantz.** 4. **Jarduera polizialaren kontrola.** 5. **Europol Hitzarmenaren ezaugarri nagusiak. Informazioaren edukia:** 5.1. Estatuaren pertsonala. 5.2. Datuen babesa. 5.3. Datuen sarbide eskubidea. 5.4. Datuen kontrola. 5.5. Datuen segurtasuna. 5.6. Konfidentzialtasun eta erreserba obligazioa. 5.7. Datuen legez kanpoko tratamendu edo erabileraren desegokiarengatik erantzukizuna. 5.8. Babes juridikoa. 6. **Immunitate eta pribilegioen protokoloa.** 6.1. Immunitatea erantzukizun zibilararen aurrean. 6.2. Immunitatea edozein prozesu judizialaren aurrean. 7. **Konstituziokontrakotasun arazok:** 7.1. Arau komunitarioaren lehentasuna. 7.2. Salbuespenak. 7.3. Europar Konstituziorik ez. 7.4. Justizia Auzitegia Auzitegi Konstituzional gisa. 8. **Ondorio gisa:** 8.1. Marko politikoa: Europako Batasuna. 8.2. Zigor Zuzenbidea, substantibo zein prozedurazkoa kanpo. 8.3. Gabezia demokratikoa. 9. **Bibliografia.**

1. Sarrera

Europol Hitzarmena, europar bulego poliziala arautzen duen tresna juridikoa, indarrean ofizialki 1999ko urtarrilaren 1ean sartu baldin bada ere, hainbat urte daramatza funtzionamenduan.

Europolizia berri honen sorrera eta funtzionamenduarekiko dauden iluntasun eta transparentzia eza dira instituzio berri honen azterketa egiterakoan abiapuntu bezala nabarmendu beharreko datu aipagarriak.

Gakoa datza Schengen Tratatuaren sinatu zuten Estatuaren autoritateek hasitako bidea *Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europar Ituna*-rekin –zeina Erroman, Europako Kontseiluaren baitan, 1950eko azaroaren 4ean sinatu zen– bat datorren ala ez.

Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europar Ituna-k, pertsonaren eskubideen babes juridikorako nazioarteko sistemarik eraginkorrena izaten darrat egun. Itunak, bere Protokoloekin batera, hainbat eskubide eta askatasun jasotzen ditu, sinatzen duten Estatuak errespetatu egin behar dituztenak. Bere I. Atalburuak *Eskubide eta Askatasunak* azaltzen ditu, eta lehenengo artikulua arabera, “Goi mailako Hitzarmenakideek, Itun honetako I. Atalburuan zehaztuta dauden eskubide eta askatasunak aitortzen dizkiete euren

eskumenpeko pertsona guztiei”. Ondorioz, eskubideen jasotzailea ez da Estatu bateko hiritarra bakarrik, baizik eta baita Estatu horretan dagoen atzerritarra ere, horrek Estatuaren polizia ahalmenarekiko berma juridiko bat eskaintzen diolarik¹.

Babestutako eskubideen artean, hauexek dira, besteak beste, gaiarekin lotura dutenak: 5. artikulua (askatasun eta segurtasun eskubidea), 8. artikulua (intimitaterako, etxebizitzarako, bizilekurako eta korrespondentziarako eskubidea), eta 4. Protokoloko 2. artikulua (mugimendu eta establezimendu askatasunerako eskubidea).

Honekin batera, Itunak, bere II. Atalburuan, eskubide horien eraginkortasuna ezartzen du, beren babeserako osatu dituen organoak aipatuz (Komisioa eta Giza Eskubideen Europar Auzitegia, batik bat), III. eta IV. Atalburuetan organo hauen konposaketa, betebeharrak, funtzionamendua, etab. zehazten direlarik.

Printzipioen adierazpenak ezertarako ez duela balio esan dezakegu, ez baldin badituzte ez praktikan jartzeko tresna egokiak, ez eta beren babesa lortzeko jurisdikziodun organo independente eta inpartzialak. Baina Itun honen ezaugarriak nagusia, hain zuzen ere, babes juridiko eta judizialaren ezarpena dugu.

Gaur egun, europar kriminal politikaren barnean, aztertu beharreko Europol Hitzarmena da, 1995eko uztailaren 26an sinatua, Schengen Tratatuaren izenpetu zuten Estatuak onartua eta dagoeneko Amsterdameko Tratatuaren dauden alderdi guztiek berretsi dutena. Baina, aurretik, gai berdinari buruz egon diren tresna juridikoak ere aztertu beharko ditugu, eman den bilakera ikusteko.

2. Aurrekinak: europar Estatuarteko lankidetzaz. Erroma, Trevi eta Schengen Itunak

Europako Elkartearen eraikuntza prozesuan, mugen pausoz pausoko desagerketak suposatu duen aldaketa geografikoak antolatutako kriminalitatean eraketa berriak zabaldu ditu, eta egoera honek polizien arteko lankidetzaz sortarazi du, delitu horien jazarpenetan lortutako emaitzak ahalik eta hobekien erabil ditzaten, hain zuzen ere.

Europar Batasunaren printzipioekin bat datorren helburu bat da, hau da, barneko mugarik gabeko espazio bakar bat. Xede honek ez luke zertan hiritarren askatasuna mugatu behar,

1. HHAA. *El sistema europeo de protección de los derechos humanos*, Madril: Civitas, 1979, 1. edizioa; 63-64 orr.

oinarrizko berma juridikoak beteko balira. Hala ere, segurtasun poliziala ez dator bat hiritarren askatasun eta segurtasun judizialarekin.

Historia errepasatuz, aipatutako segurtasun mota horietan, nazioarteko lankidetzaren sistema bat eratzerakoan, 1957ko Erromako Tratatuaren izan zen aitzindaria. Hurrengo pausoa, Europako Agiri Bakarraren onespenerarekin etorri zen, 1986ko otsailaren 17an, bere garapena 1992ko abenduan Maastrichteko Itunaren bukatu zelarik, barne azoka bat osatuz, bai pertsonen ibilbide askearena, zein merkantzia eta kapitalena. Hala ere, aurrekin berezi bezala aipatu beharrekoak dira *Trevi-ko Itunak*, Italian 1975. urtean Europako Barne eta Justizia ministroek ospatutako konferentziaren ondorioz. *TREVI I Hitzarmenak Terrorism, Radicalism and Violence International* adierazi nahi du, eta tituluan aipatutakoak aurreikusitako eta borrokatzeko neurri praktikoa ezartzea du helburu. 1983. urtean, *TREVI II* Hitzarmen bezala ezagutzen dena sinatu zen, aurrekoaren garapena, azterna daktilar eta ADNren datu base baten artxibategi bat lehendabizikoz osatzeko asmoz. *TREVI* Hitzarmenek gobernuen arteko lankidetzaz funtzionatzen dute².

Askatasuna-Segurtasunaren arteko gatazka sortu zen orduan bete-betean, hain zuzen ere hiritarren eskubide konstituzionalen errespetua kolokan jartzen zelako. Jarraian agertu izan diren lankidetzaren judizial eta polizialari buruzko Protokoloak oso ugariak izan dira EBeko Estatuaren gobernuen artean, baina lankidetzaren polizialak garapen izugarria izan du lankidetzaren judizialarekin konparatuz³. Arrazoia logikoa da: gobernuen arteko lankidetzaren ez da gai komunitario bezala hartzen, eta, ondorioz, ez da aho batez onartu behar, Estatuari askatasun osoa emanez gai delikatu hau nahi duten bezala arautzeko. Iniziatiba ezberdinak egotea arazoa izan da baita ere, gai berdinei buruzko –batez ere hasieran drogen aurkako borrokaekin lotuta– akordio eta itun ezberdinek izugarriko arau korapiloa sortarazi zutelako: gai berdinari buruz edo kide berdinek osatutako itun ezberdinak daude lurralde eremu ezberdinetan (Europako Kontseilua, Schengen Gunea, Benelux, CPE Itunak –europar lankidetzaren politikoa murgilduta–, Europako Batasuneko Hirugarren Zutabeko Itunak). Kontuan izanik Zuzenbide Publikoaren gai garrantzitsuenetarikoez ari garela, hau da, Zigor

Zuzenbidea eta administratuen berma prozesalez, oso adierazgarria da Europako Elkarrekin sortu zuten Itunek ez daukatela, Zuzenbide Publikoari dagokionez, batzeko edo harmonizatzekeo xedapenik. Eta Maastrichteko Itunak ez du egoera hau aldatu, zigor arloko lankidetzaren, Itunaren K.1 artikuluan oinarritua, gobernuartekoa baita.

Europako Legebiltzarrak, hainbat ebazpenetan, Europako Elkarrekin zigor arloan eskumena duela azaldu izan du⁴, baina Kontseiluaren barnean, Estatu gehienak ez daude prest Elkarrekin horrelako ahalmen bat aitortzeko. Horrela, autore batzuen ustez, Estatu gehienek mantendu izan duten oposaketa jarrera honek eragina izan zuen Elkarrekin Itunaren 209 A artikulua gehitzean, Maastrichteko Itunaren bitartez⁵. Xedapen honek ez dio Elkarrekin zigor arloan inolako ahalmenik ematen, eta Estaturikideek, Elkarrekin dagozkion interes finantzieroei buruzko iruzurraren aurka borrokatzeko, beren akzioak koordinatu behar dituztela bakarrik adierazten du.

209 A artikulua gainean, Komisioak lankidetzaren bideari buruz egindako Van den Wyingaert Txostenak argi adierazten du polizial eta judizial mailan lankidetzaren emaitzak ez direla batere onak izan, arazoien artean indarrean dagoen araudi korapilotsua aipatuz⁶.

Bestalde, nazioarteko lankidetzaren polizial eta judizial mailan sinatutako akordioek gabezia demokratikoa eta giza eskubideen errespetu eza suposatzen dute, eta horrela aitortu du, besteak beste, Europako Legebiltzarrak⁷.

3. Europar gune polizial komun baterantz

Europar Batasuna sortzearekin, Estatuak gaitzeko mugarik gabeko gune bat osatzea planteatu zen helburu bezala, Estatuaren gobernuak eremu ezberdinetan politika berdina aplikatuz maila sozial, juridiko, finantza, ongizatean, etab. Europako Elkarrekin helbururik garrantzitsuenetarikoa pertsonen, merkantzien, zerbitzuen eta kapitalen zirkulazio askea denez, helburu horrekin bat egiteko hartu izan diren neurrien artean, EBeko muga eta aduanetako barne kontrolak desagertzea dago.

2. TREVIko Ituna, Erromako 1975eko irailaren 1 eta 2an, Europar Kontseiluaren Erabakiaren bidez sortua.

3. Interpol, GAFI (G15), CEPC, *Pompidou Taldea*, Europako Kontseiluaren eremuan; Koordinatzaileen Taldea, TREVI, UCLAF, MAG, MAG'92, DAF, CELAD; Immigrazioari buruzko talde *ad hoc* EB eremuan, Benelux, Schengen Taldea, Police-Working group, etab.

4. 1991ko urriaren 24ko Ebazpena, EEO 1991 C 305, 107. or., besteak beste.

5. CLOOS, REINESCH, VIGNES eta WEILAND. *Le Traité de Maastricht, genèse, analyse, commentaires*, Brusela, 1993.

6. DELMAS-MARTY, Mireille. *CORPUS IURIS, Portant dispositions pénales pour la protection des intérêts financiers de l'Union Européenne*, Paris: Economica, 1997; 27. or.

7. Europako Legebiltzarreko A3-0382/92 Ebazpena, 1993.1.22koa, K atalean: "Judizial eta polizial arloetan dauden nazioarteko itunek, lankidetzarako nazioarteko itunek eta erakunde ugariak gabezia demokratiko eta giza eskubideen errespetu eskas bat eragin dezaketela kontuan izanik..."

Neurri horri aurrea hartuz, Benelux, RFA eta Frantziako Estatuak 1985. urtean *Schengen Akordioa* sinatu zuten, Estatu horietako barneko mugen aduanak eta bestelako izapidetzak ezabatzea suposatu zuelarik, pertsonen zirkulazio askeari dagokionez. Ituna gobernuen arteko akordioa izan zen, eta immigrazio, asilo eta bisatuei dagokien gaiez arduratzen da, Europako Erkidegoko hiritarrei zirkulazio askea baimenduz "Schengeneko eremuan".

1990eko ekainaren 19an sinatu zen *Schengen Akordioa Aplikatzeko Ituna*, bertan, I. Atalburuan, hainbat kontzeptu zehazten delarik; besteak beste "muga komuna", "kanpoko muga", "hirugarren Estatu", "atzeritarra", "sarrera debekatzeko identifikatutako atzeritarra", "erresidentziarako baimena", "asilo eskabidea", "asilo eskalea", etab.

III. Atalburuko 1. Atalean lankidetzatza poliziala jorratzen da, delituen aurreikuste eta ikerketan elkarren arteko laguntza emateko konpromisoa hartuz, lankidetzatza hau bi motatakoa izanik:

- Zigor auzi baten epaiketaren aurreko mailan datu informatikoak elkartrukatzea, koakzio tresnak erabiltzen ez direnean (39. artikulua).
- Mugak gurutzatzerakoan, ikusketa eta jarraipen eskubidea (40-43 artikulua).

III. Atalburuko 2. Atalean, zigor auzietan elkarren arteko laguntza ezartzen da. Zigor auzietan, "laguntza judizial txikia" aurreikusten da 1959ko Europar Ituneko eta Beneluxeko Ituneko xedapenen lagungarri bezala⁸.

Atalburuko 4. Atala estradizioari buruzkoa da, eta, honetan ere, 1959ko Europar Ituneko eta Beneluxeko Ituneko xedapenak osotzen ditu.

IV. Atalean, SIS (Schengeneko Informazio Sistema) sortzen da, kanpoko muga zein barneko kontrol polizialean pertsonen zein gauzei buruz lortutako datuen sistema informatiko komuna, Itunaren kide diren Estatuaren esku egongo dena, eta hau guztia helburu bikoitz batekin: batetik, informazio erreserbatua Alemania, Benelux eta Frantziaren artean gorde eta elkartrukatzea, eta bestetik, ikerketak aipatutako Estatuaren eremua gainditzen duenean, ekintza operatibo komunak garatzea.

Informazio sistema hau zabalduta, eta jarraian *European Drug Intelligence Unit* (EDIU), droga trafikoa errepresiorako datuen

elkartrukatze bulegoa sortu zuten, Alemanian kokatua. Hauxe izan da Europolen aitzindaria. Sistema biek gabezia demokratiko berbera dute: datuen hornidurari dagokionez, iturrien eta igortzearen transparentzia eza, ez legebiltzarrean ez eta judizial mailan.

1991 eta hurrengo urteetan, hainbat Estatu atxiki izan zaizkio Itunari, Protokolo ezberdinen bitartez; besteak beste, Polonia, Italia, Espainia, Portugal, Grezia eta Austria⁹.

Europako Erkidegoaren Itunaren baitan pauso berri bat emanez, Luxembourgeko 1991ko Gailurrak atzeritarren eskubideei buruzko politikaren harmonizaziorako hainbat eskuduntza sartu zituen Europako Erkidegotik kanpoko hiritarrei buruzko asilo, errefuxiatu, immigrazio eta kanporaketari dagokionez.

Horrela, Tratatuaren VI. Atalburuko K.1 artikuluan, Estatuaren helburuen artean, honako hauek aipatzen dira:

- 1) Asilo politikoa eta errefuxiatuen politikak, Tratatuaren alderdi ez diren Estatuetakoko pertsonen zuzenduak.
- 2) Inmigrazio politika, atzeritar hiritarren behin-behineko zein behin betiko egonaldia buruzkoa, eta senideen berbiltzeari buruzko araudia.
- 3) Langileria legez kanpoko kontratazio zein trafikoa eta Estatuaren arteko legez kanpoko hiritar immigranteen mugimenduen jazarpena.

Politika hauen ezaugarri nagusia administrazio mailan ekoiztu izana da, legebiltzarren partehartzerik gabe –Estatuetakoko zein Europako Legebiltzarra–, xedapenek daukaten arau mailak botere legegilearen kontrola ekiditea ahaibideratu duelarik.

Oso zaila da Europa eraikitzearen eredu hori eta *Giza Eskubideen Europar Ituna*-ren 5, 14, 16 eta 18. artikulua uztartzea, hauek askatasun eta segurtasuna mugatzeko debekua, diskriminazioaren debekua, atzeritarren arrazoi gabeko mugen debekua, eta oinarriko eskubideak mugatzen dituzten xedapenen kontrol juridikzionala ezartzen baitute.

Kezka hau behin baino gehiagotan azaldu izan du Europako Legebiltzarra. Horrela adierazi zuen Europol sortzeari buruzko Ebazpenean¹⁰, kide diren Estatuak batetik Europoleko araudia osatzean

8. Beneluxeko Ituna, 1962.6.27koa, Estradizioa eta Zigor arloko auzietan laguntza juridikoari buruzkoa; 1974.5.27ko Protokoloak aldatua.

9. Estatu espainiarrak 1991ko urriaren 22an onartu zuten Schengen Itunari atxikitzea (Gorte Nagusien Aldizkari Ofiziala C 194-1, 1991.10.26).

10. Europako Legebiltzarreko A3-0392/92 Ebazpena, op. cit., 16. Atala.

Giza Eskubideak Babesteko Europako Ituna sartzea eta bestetik datu judizial eta polizialekiko intimitatea babesteko Lege bat egitea eskatuz.

Edozein kasutan, Schengeneko Estatuarteko markoa eta Europako Batasuna uztartzeko, Amsterdameko Ituna sinatu zen 1997ko urriaren 2an. Itun honen arabera, Schengeneko araudia Europako Elkarteko markoan sartzen da, eta ondorioz, pertsonen zirkulazio askea Europako Elkartean osoari aplikatzen zaio, Britainia Handiari izan ezik. Estatu honek Schengeneko xedapen batzuk bakarrik onartzen ditu, hain zuzen ere informazio sistemari dagozkionak, bere mugetan pertsonak kontrolatzeko eskubidea mantenduz¹¹. 2000 eta 2001. urteetan zehar eskandinaviar Estatuak aplikatuko zaien Ituna, baina Danimarkarekiko xedapen bereziak ezarriko dira. Norvegia eta Islandia aurretik elkartu ziren Schengen eremura.

Aurrekoaren ondorioz, Amsterdameko Tratatuak, K.3 artikuluan, bere kide diren Estatuaren eremuen arteko pertsonen ibilbide askeari dagokion gai orori buruzko lankidetzaren politikak komuna ezartzen du. Eremu polizialean ezarritako ekintza komun honek ez du bakarrik polizia eta aduana zerbitzuen lankidetzaren operatiboa aurreikusten, baizik eta baita segurtasunari buruzko informazio sareen elkarkonexioa, hala nola, delituen aurreikuspena, ikerketa eta frogen bilketa, kriminalitate estadistikak osatzea, etab.

Horretarako, "bitartekoaren" figura sortzen da, droga, armak, terrorismoa, iruzur fiskala, bahiketak, hilketak, bortxaketak, moneta faltsuen ekoizpena, suteak eta ondare toxikoei buruzko edozein delitu ikertzeko eskuduntza duten Estatuaren autoritateen eta antolatutako delinkuentziaren datuen dokumentazio zentruen arteko bitartekaritza lanak egiten dituen, hain zuzen ere. Arazoa da bere kide eta egitura guztiek inolako kontrolik gabe funtzionatzen dutela –bitarteko funtzionarioen eta haien senideen pribilegio eta immunitateak arautzen dituzten Protokoloak sinatzen ari dira Estatuak Holandarekin–, nahiz eta Europako Erkidegoaren Tratatuaren 220. artikuluan arabera, Luxembourgeko Justizia Auzitegiaren menpe egon beharko luketen.

Europako Batasunaren Tratatuaren VI. Tituluan oinarrituta, eta bereziki K.3 artikuluan, 1993an Europar Polizia Bulegoa, EUROPOL, ezartzen da, Holandako Den Haag hirian duela bere egonlekua, bere organo eta agenteen pribilegioa eta immunitatea arautzen dituen Protokoloaren

arabera funtzionatuz. Europol Ituna, 1998ko urriaren 1ean sartu zen indarrean, eta 1999ko uztailaren 1etik aplikatzen da. Europako Legebiltzarrak bere zein Estatuaren legebiltzarren parte-hartzea eskatu izan du behin baino gehiagotan, Europolen helburu, eskumen eta lan tresnak finkatzeko, baina ez du inolako eraginik izan¹².

4. Jarduera polizialaren kontrola

Lankidetzaren kontestuan hartutako neurriak, batez ere delitu gori-goria jazartzearen eskubidea (Tratatuaren betetzeko Itunaren 41. artikulua aplikatuz), eta mugaz gaindiko begirapen eskubidea (40. artikulua), ez dira nahikoak izan gobernuz kanpo. Hainbat kasutan muga batzuk ezarri dira; horrela, "berotasunean egindako jazarpenean", distantziak ez dira nahikoak zehaztu (10 eta 50 km artean), armen erabilera debekatuta dago bidezko defentsarako ez baldin bada, edota mugaz gaindiko begirapenean, ez da posible pertsona atxilotu eta galdeketa egitea. Ondorioz, poliziak indar presioa egin izan du Estatuaren Barne eta Justizia ministroengan, europar poliziaren gorputz horretako kideek ekintza askatasun eta inopunitate handiagoa izan dezaten.

Horren adibidea, estatu espainiarrean, 1999ko urtarrilaren 13an onartutako 5/99 Lege Organikoa da, Judiziamendu Kriminaleko Legea aldatzen duena droga trafikarekin eta bestelako legez kanpoko jarduerarekin zerikusia duten ikerketetan. Lege honen arabera, karguzko frogak lortu eta delituaren egileak aurkitu eta atxilotzeko, susmoetan dauden hiritarren intimitate eskubide batzuk urratu ahal dira. Jarduera polizialaren kontrola, parte-hartze horren ondokoa izango da, ez alde aurretikoa.

Judiziamendu Kriminaleko Legearen 263 bis) artikuluan arabera, "emanaldi begiratu" figura juridiko berria ezarriko da, zeinaren arabera, ahalmen polizial hori drogen trafikora nahiz beste edozein kriminalitate eratarik hedatuko den, hau da, diruaren zuzitzea, moneta faltsuaren zirkulazioa, armak eta munizioak, lehergailuak, etab... Artikulu hau Amsterdameko Tratatuaren aplikatzeko Itunaren 40.3 artikuluan oinarrituta dago.

Ildo beretik, aipagarria da 282 bis) artikulua ere, zeinaren arabera, "Polizia agente estalia"-ren figura sortzen den, nortasun faltsu bat emanez ikerketa kriminal batean, kasuaren ikerketa polizialean zein ondoko prozesu judizialean ari diren poliziei. Ahalmen hau Polizia Judizialaren Sail Organikoen nagusiei dagokie, betebeharrak bakarrik Ministerio Fiskalari "ondoren" eman beharreko abisua izanik. Kontuan hartuz Ministerio Publikoa bai Espainian zein Europol Hitzarmena sinatu duten

11. Europako Justizia eta Barne gaitako 1999ko abenduaren 2ko Kontseiluan.

12. Europako Legebiltzarreko A3-0382/92 Ebazpena, op. cit., 3. Atala.

Estatuetan botere exekutiboaren menpe dagoela, bere inpartzialtasun eta objektibotasuna kolokan jartzen dira interes politikoaren arabera, giza eskubideen babes eta berma juridikoaren kalterako.

Salbuespen gisa, agente estaliak organo judizialari baimena eskatzeko daukan betebeharra agertzen da, ikerketaren jarduerak hiritarren oinarrizko eskubideetan eragin zuzena izan dezakeenean. Baina, kasu honetan, nola da posible polizia batek horrelako balorazioa egitea? Zein momentu eta zer nolako faktoreak ditu kontuan? Ez du ematen poliziak erantzukizun hori bere gain hartzeak berma handirik suposatzen duenik.

Honetatik guztiak ondorioztatzen dena zera da: Europol Hitzarmenari eta 5/99 Lege Organikoari esker, agente estaliak ikerketa baten baitan egindako jarduerengatik erantzukizun kriminalaz salbuetsita daudela, izugarriko arriskua sortuz hiritarren eskubideentzako, hain zuzen ere kontrol judizial ezak, ez aurretikoak ez ondorengoak, inpunitate egoera dakar eta.

5. Europol Hitzarmenaren ezaugarri nagusiak. Informazioaren edukia

Europolen helburua –2. artikuluan aipatzen dena–, sinatu duten Estatuaren lankidetzaren poliziala ezartzea da, jarraian aipatzen diren delituei aurrea hartu eta horien aurka borrokatzeko asmoz: terrorismoa, drogen, material nuklear eta erradioaktiboen legez kanpoko trafikoa, legez kanpoko immigrazio sareak, gizakien trafikoa, lapurtutako ibilgailuen trafikoa, diruaren zuritzea, eta hauekin lotutako delituak.

Helburu horiek lortzeko bete behar dituzten funtzioak 3. eta 6. artikuluetan zehazten dira: Estatuaren arteko informazioaren elkartrukaketa eta datuak artxibatzearen sistema informatizatu baten sorrera, beronek hiru fitxategi izango dituelarik:

- a) Oinarrizko datuak dituen informazio sistema
- b) Informazio zehatza duen lan fitxategia
- d) Indize sistema

Fitxategi horietan, Europolen eskumena diren delituengatik susmopean dauden pertsonen, zigortuak izan diren pertsonen edota delituak egin ditzaketen pertsonen datuak gordeko dira, 8. artikulua dioenaren arabera.

Lekukoak izan daitezkeen pertsonen datuak, zein kaltetu, bitartekari edo laguntzaile izan

“ **Europolen helburua Estatuaren lankidetzaren poliziala ezartzea da, delituei aurrea hartu eta horien aurka borrokatzeko. Horiek lortzeko, informazioaren elkartrukaketa eta datuak artxibatzearen sistema informatizatuaz baliatu da** ”

daitezkeenak, edo aipatutako delituez informazioa eman dezaketen pertsonen datuak ere sar daitezke, 10. artikulua aukera hau ematen baitu.

Gorde eta elkartrukatu diren pertsonen datuak honakoak dira: nortasun fisikoa, fisiologikoa, mentala, ekonomikoa, kulturala edo soziala. Jatorri arraziala, iritzi politiko, erlijioso edo bestelako sinesmenei buruzkoa, osasuna edo bizitza sexualari dagozkien datuak salbuespeneko kasuetara mugatuko dira.

Hori gutxi balitz, Europako Elkarteko Kontseiluak 1999ko martxoaren 12an hartutako erabakiaren arabera, bestelako Estatu eta erakundeekin akordioak sina ditzake datuak elkartrukatzeko¹³.

5.1. Estatuaren pertsonala

Datuen emate, sartzeko eta egunean jartzearen jarduerak bitartekari funtzionarioen sailen eskumena da, Estatu bakoitzak izendatu eta Estatuaren Zuzenbidearen pean daudelarik. Berauek, informazio trukaketaren ekintzen legaltasuna zaindu behar dute, 4 eta 5. artikuluetan adierazten den bezala.

13. Europako Justizia eta Barne Gaietako Kontseiluak 1999ko martxoaren 12an hartutako erabakia.

5.2. Datuen babesa

Hitzarmenaren 14. artikulua arabera, Estatu bakoitzak datuak babesteko Europako Kontseiluak 1981eko urtarrilaren 28an hartutako Hitzarmenaren printzipioetan eta 1987ko irailaren 17ko Gomendioan agertzen den babes maila berbera gutxienez lortzeko behar diren xedapenak ezarriko ditu.

16. artikulua datuen babesa kontrolatzeko arauak ezartzen ditu, datuen hamar kontsultetatik baten akta jasoz, datuen kontsulten legaltasuna egiaztatzeko.

5.3. Datuen sarbide eskubidea

Hitzarmenak, 19. artikuluan, Europako Batasuneko edozein hiritarrek, berari buruzko zer nolako informazioa gordetzen duen jakiteko, Europoli eskaera bat egin diezaikeela onartzen du; hala ere, Europolek uka dezake informazio hori, "Europolek bere funtzioak betetzeko beharrezkoa denean".

5.4. Datuen kontrola

Estatu bakoitzak "kontrol autoritate" bat izendatuko du, bere lana datuen sarrera eta erabileraren zilegatasuna ikuskatzea izango delarik, Estatuko araudiaren arabera, 23. artikuluan xedatzen den bezala.

Horrez gain, kontrol autoritate komun eta independente bat ezartzen du 24. artikulua, Estatu bakoitzeko autoritateen bi kidez osatua, Estatu bakoitzak bost urteko eperako izendatzen dituen.

5.5. Datuen segurtasuna

Datuak ondo babesteko, Hitzarmenak segurtasun neurri tekniko zein eratzailak aurreikusten ditu 25. artikuluan, baina beti ere oso zalantzarik, izan ere, "neurri bat beharrezko bezala hartuko da bere kostua babestutako helburuarekin bat datorrenean".

Beraz, segurtasun juridikoa kolokan jartzen da behin eta berriro, hain eremu garrantzitsu honetan, eta datuen erabilerak oso babes eskasa du.

5.6. Konfidentzialtasun eta erreserba obligazioa

Europoleko organo eta kide guztiek konfidentzialtasuna eta erreserbarik handiena

gorde behar dute haien eginkizunetan. Horrela, prozedura judicial edo estrajudiciala ezin izango dute inolako testigantzarik eman edo adierazpenik egin parte hartu duten ekintzei buruz.

5.7. Datuen legez kanpoko tratamendu edo erabilera desegokiarengatik erantzukizuna

Estatu bakoitzak, bere araudiaren arabera, Europolek datuen gordetze edo erabileran egindako zuzenbidezko zein egitatezko errakuntzengatik eragindako kalteengatik erantzukizuna izango du. Biktima, edozein kasutan, kaltea eragin duen Estatuari bakarrik zuzen dakiokela kalteordainak eskatzeko, eta Estatu horren Zuzenbidearen arabera eskumena duten auzitegiak jo beharko du. Erantzukizuna beste Estatu batena edo Europolena izan baldin bada, Estatuak errepetizio eskubidea izango du datuei buruzko akatsa haiena izan baldin bada, 38. artikulua ezartzen duen bezala.

Ondorioz, Europol bere jardueran egindako errakuntzengatik sor daitekeen erantzukizunaz salbuetsita dago beti.

5.8. Babes juridikoa

Hitzarmenak ez dio inolako aipamenik egiten hiritarren babes juridikoari, eta 40. artikuluan bakarrik adierazten da Hitzarmenaren interpretazio edo aplikazioa dela eta Estatuaren artean sor daitezkeen arazoak erabakitzeak aukera, lehendabiziko pausoa izanik "Kontseiluan aztertzea, EBeko Tratatuaren VI. Tituluan ezartzen den prozeduraren arabera".

Sei hilabete igaro ondoren ez balitz soluziorik lortuko, gatazkan inplikaturako Estatuak soluzio batera heltzeko prozedura ezarriko lukete.

Gatazka Europol eta Estatu baten artean planteatu daitekeenik ez da aurreikusten. Ondorioz, ez da inolako prozedurarik ezartzen arazo gertatuko balitz gainditzeko.

Aurrejudizio Gaiak planteatzeko Protokoloa egon arren, eraginkortasun murriztua du Europolen jardueraren ezaugarri bereziak kontuan hartzen badira, hau da, bere helburua informazioa delitua gertatu baino lehenago jasotzea dela, eta ez gertatu ondoren. Beraz, tresna juridiko hau ez da batere egokia Europolen jardueren legezkotasunaren kontrol judicialari begira, kontuan izanik, gainera, bere kideen immunitate Protokoloa ere hor dagoela.

6. Immunitate eta pribilegioen protokoloa

Europol Hitzarmenaren 41.3 artikulua Europolen organo, zuzendari-ondoko zein agente guztiarentzatko immunitatea ezartzen du. Immunitate horren arrazoia, "Europolen funtzioak betetzeko beharrezkoa" da, eta bere garapena dagokion Protokoloan izango du¹⁴.

Protokoloaren onespena Estatu bakoitzaren arau konstituzionalen arabera izango da, baina bakarrik onspenaren baldintzekiko, inolaz ere immunitateen edukiekiko.

Immunitatea bi eratakoa izango da.

6.1. Immunitatea erantzukizun zibilaren aurrean

Protokoloaren 3.1 artikulua Europol erakundearen immunitatea ezartzen du Hitzarmenaren 38.1 artikuluan aurreikusten diren erantzukizun zibilengatik prozesu judizialen aurrean. Beraz, Europolek gorde eta erabilitako datuen gainean egin ditzakeen zuzenbidezko zein egitatezko errakuntzengatik sor daitezkeen kalteengatik ondorioztatzen den erantzukizun zibilaz ari gara. Lehen esan dugun bezala, Hitzarmenak berak errakuntza sortu duen Estatuan ezartzen du erantzukizuna.

Ondorioz, Europol erabat immunea izango da erantzukizun zibilari dagokionez, eta berak egin ditzakeen errakuntzak inolako kontrol judizialik gabe geldituko dira, eskubideen zigorgabeko urraketa bat ezarriz.

6.2. Immunitatea edozein prozesu judizialen aurrean

Protokoloaren 8. artikulua bigarren immunitate mota azaltzen du, zeinaren bitartez Europoleko pertsonal guztiak eta bere organoen kideek immunitatea izango duten edozein prozesu judizialen aurrean, "haien jardueraren kontestuan egindako edozein ekintzagatik eta ahozko zein idatzizko adierazpenengatik".

Xedapen honek ematen duen immunitatea inpunitatearekin parekatzen da, zabal-zabalik geratzen baita hiritarren oinarritzko eskubideen urraketa. Arau honen arabera, Europoleko agenteek askatasun individualaren eskubidea, bizilekuaren bortxaezintasuna, atxiloketarekiko

“ Europoleko pertsonal guztiak duen immunitatea inpunitatearekin parekatzen da, zabal-zabalik geratzen baita hiritarren oinarritzko eskubideen urraketa, auzitegien aurrean inolako erantzukizunik izan gabe



berma konstituzionala, komunikazioen konfidentialitatearen eskubidea, etab. urra ditzakete, auzitegien aurrean inolako erantzukizunik izan gabe.

Protokoloaren 12. artikulua espreski adierazten duenez, "Protokolo honek ezartzen dituen pribilegio eta immunitateak Europolen interesen ematen dira, eta ez partikularren onura pertsonalerako. Europolek eta pribilegio eta immunitateaz goza dezaketen gainontzeko pertsonak, bestelako gaietan partaide diren Estaturen lege eta araudiak bete behar dituzte".

12.2. artikulua immunitatearen etetea aurreikusten du, bi baldintza eman behar direlarik: immunitateak Justiziaren ekintzari oztopoak jartzea, eta eteteak Europolen interesei kalterik ez egitea. Honekin muga batzuk ezarri nahi zaizkio immunitateari. Dena dela, Europolen interesen kontzeptua oso zalantzagarri eta zehazgabea da, Hitzarmenak berak ez baitu definitzen zehazki zeintzuk diran interes horiek; beraz, kasu bakoitzean interpretatu beharreko gauza litzateke. Bestalde, immunitatearen etetea buruz Europolen organo eta Estatu baten auzitegi baten artean suerta daitezkeen arazoak Kontseiluak konpondu beharko dituela azaltzen denean, ez da zehazten zein Kontseiluri buruz ari garen,

14. Immunitate eta Pribilegioen Protokoloa, EBaren Itunaren K.3 art.an eta Europol Itunaren 41.3 art.an oinarrituta. (EEAO C 221/2, 1997.7.19).

Europolen Administrazio Kontseilua edo Europako Batasuneko Kontseilua. Zehazgabetasuna nagusia izanik, immunitatea etetearen aukerak oso murrizak izango direla ondorioztatzen da.

Europolen agenteen partetik irregulartasun bat gertatu denean, jarduera horretan lortutako frogak nuluak izango dira.

Beste kontu bat da prozesu judizial bateko frogen baliogarratasuna. Hauek Estatu baten baldintza legal eta konstituzional guztiak betetzen dituztenean, baina beste Estatu bateko prozesu judizial batean erabiliko direnean, non froga horiek lortzeko bestelako baldintza batzuk galdatzen diren legezkoak bezala kontuan hartzeko. Printzipioz, Estatu bateko prozesu judizial baten pean dauden hiritarrek, Estatu horrek dagokion prozedurari ematen dizkion berma legal eta konstituzional guztiak izan beharko dituzte.

Frogak lortzerakoan oinarritzko eskubideen berma gutxiago galdatzen dituen araudi atzeritar batek ezin dio prozesu judiziala jarraitzen duen Estatuaren eskubideen babesari uko egin, horrek segurtasun juridiko eza ezartzen baitu.

Horren ondorioz, esan daiteke Europolen agenteek legez kanpo lortutako frogak zein beste Estatu batek legez baina berma prozesal gutxiagorekin lortutakoak, ezin direla froga baliogarriztat hartu beste Estatu bateko prozesu judizialean. Azken batean, Europolen funtzionamendu mota honi esker inpunitatea lortuko lukete Europolek berak helburu bezala dituen delituek.

Europar eremu polizial immune bat sortzeak, inolako kontrolik gabekoa –legebiltzar edo auzitegien aldetik–, Europoli buruzko sormenaren helburura eramaten gaitu. Zein da benetako helburua, delituen jazarpen poliziala ala judiziala?

7. Konstituziokontrakotasun arazoak

Hitzarmenaren Gai Aurrejudizialen Protokoloak, gai hauek Europako Batasuneko Justizia Auzitegiaren aurrean aurkeztea aurreikusten du¹⁵. Kontua da ea jokoan dauden eskubideak ikusirik, posible den Konstituzio mailan dauden prozedurak zabaltzea.

7.1. Arau komunitarioaren lehentasuna

Europako Erkidegoa Konstituzio batean oinarritu beharrean, Itunetan sortu zen, tresna juridiko hauek nazioarteko Zuzenbidean ordenamendu juridiko berri bat osatuz, ondorio berri batzuekin, besteak beste gizabanakoei eskubideak ematea.

Ondorio juridiko honen oinarria Zuzenbide Zibilaren printzipio batean koka daiteke, zeinaren bitartez hirugarren pertsonak beste parte bien arteko kontratu baten bitartez onura jaso dezaketen. Zuzenbide Komunitarioan, printzipio honi “eragin zuzenaren printzipioa” deitzen zaio. Estatuari inolako interpretazio izpirik uzten ez dion eta eskubideak sortu edo betebeharrak inposatzen dituen xedapen argi eta zehatz bat dagoenean aplikatzen da, Estatuetako jurisdikzioek babestu egin behar dutelarik.

Halaber, Zuzenbide Komunitarioaren bigarren printzipio nagusia “arau komunitarioaren lehentasuna” da. Honen arabera, Itunak kontratuak bezalakoak dira, zeintzuen bitartez Estatuak haien eskubide eta betebeharrak elkarrekin lotesten diren, eta ondorioz Estatu batek ezin ditu Itunean hartutako konpromiso eta betebeharrak aldebakarrez alde batera utzi.

Printzipio bi hauek Zuzenbide Komunitarioaren zutabe nagusiak dira, Justizia Auzitegiak sortu eta garatuak, Itunei Konstituzio maila bat emanez¹⁶.

Zuzenbide sistema honen arabera, Estatuetako auzitegi eta epaitegiak dira Zuzenbide Komunitarioaren auzitegi arruntak, hau da, berau aplikatu behar dutenak, Estatuak hartutako betebeharrak betearaziz edota pertsonen Itunek aitortzen dizkieten eskubideak bermatuz. Justizia Auzitegia ez da apelazio edo kasazio auzitegi bat; bere lana Zuzenbide Komunitarioa aplikatzeko Estatuetako auzitegiei laguntza ematean datza.

Europako Batasuneko Auzitegiak emandako hainbat epaietan argi islatzen da arau komunitarioak lehentasun absolutua duela Estatu bakoitzaren barne Zuzenbidearekiko; beraz, Estatu baten Konstituziotik ondorioztatzen diren

15. Aurrejudizio Gaien Protokoloa, EBaren K.3 art. an oinarritua, Europako Erkidegoko Justizia Auzitegiak Europako Polizia Bulegoa sortzen duen Itunaren aurrejudizio interpretazioari buruzkoa (EEAO C 299/2, 1996.10.9).

16. EDWARD. D.A.O. Zuzenbide Komunitarioaren eragin zuzena eta lehentasuna. Direktiben arazo berezia. In: *Herri Arduralaritzazko Euskal Aldizkaria*, 42. alea, Oñati: HAAE, 1995; 37. or.

printzipioek ez dute inolako eraginik Batasunaren edozein ekintzaren baliogarritasunean, jarduera hori Europako Batasunaren Zuzenbidearen batasun eta eraginkortasunaren aurka joango litzatekeelako, Batasunaren kohesioa arriskuan jarri. Adierazgarriak dira Simmenthal, Factortame, Handelsgesellschaft eta Hauer Epaia¹⁷.

7.2. Salbuespenak

Bi kasu aipa ditzakegu non Estatuetakoa Auzitegi Konstituzionalak mugak ezarri zizkieten arau komunitarioaren aplikazioari, haien barne araudiek jasotzen dituzten oinarritzko eskubideak babestuz.

Lehendabizi, Italiako Auzitegi Konstituzionalak, 1973. urtean, adierazi zuen ezin direla onartu Konstituzio italiarrak onartzen dituen oinarritzko printzipioak edo pertsonaren eskubide besterenezinak urra ditzaketan arau komunitarioak.

Alemaniko Auzitegi Konstituzionalak, 1974. urtean, Handelsgesellschaft auzian, Justizia Auzitegiaren aurrean aurrejudizio gaia planteatzean jaso zuen epaiari erantzunez, Zuzenbide Komunitarioa bere Konstituzioan onartzen diren oinarritzko eskubideekin bateratzeko eskubidea bereganatu zuen, Zuzenbide Komunitarioak Europako Legebiltzarrak aitortutako oinarritzko eskubide eta bermen zerrenda bat osatzen duen heinean, Alemaniko Konstituzioak onartzen duenaren parekoa, aplikagarria izango zela azalduz.

1989. urtean, Europako Justizia Auzitegiak Bonnekoko Oinarritzko Legeak jasotzen dituen oinarritzko eskubideei buruzko printzipio juridikoak bermatzen ez dituen bitartean, interesdunek Auzitegi Konstituzionalera jotzeko aukera izango dutela adierazi zuen Alemaniko Auzitegi Konstituzionalak¹⁸.

7.3. Europar Konstituziorik ez

Europako Batasunak ez du idatziz jasotzen hiritarren oinarritzko eskubideen babesa; aldiz, Justizia Auzitegiaren jurisprudentzian oinarritzen da, segurtasun juridikoaren kalterako.

Ezinbestekoa da, beraz, idatziz egindako aldarrikapen bat. Horretarako, Tratatuak aldatu beharko lirateke, nahiz eta Estatuak oinarritzko jarri. Azken batean, EBren eraikin demokratikoak hortik abiatu beharko luke, hau da, oinarritzko giza eskubideak jasotzen dituen Konstituzio baten bitartez.

Hainbatek –Komisioak beste beste– proposatutako ideia, Europako Kontseiluaren Hitzarmen Europarrari (*Giza Eskubide eta Oinarritzko Askatasunak Babesteko Europar Ituna*, edo *Erromako Kobentzioa*, 1950-11-4ean egina) atxikitzea litzateke, baina, esan bezala, Estatu askok behin eta berriro oztopatzen dute, beren ordenamendu juridikoan zuzenean aplikatzea suposatuko lukeelako.

Autore batzuk, aldiz, ez dira iritzi berekoak, Zuzenbide Komunitarioak Giza Eskubideen Europar Itunak baino garrantzi handiagoa izango duelako Estatuaren ordenamendu juridikoetan. Zentzu horretan, Erromako Itunak eta bere garapen arauak “konstituzionalitate bloke” bat osatzen dutela diote, Estatuetakoa konstituzionalitate blokeen gainean daudenak, eta beraz, lehentasuna dute aplikatzeko orduan –eragin zuzena eta lehentasun printzipioak aplikatuz–, Italia eta Alemaniko Auzitegi Konstituzionalen jarrerak Zuzenbide Komunitarioaren urraketa bat suposatu duelarik¹⁹.

Hau egia izanik, planteatu beharreko gaia hau da: Europaren eraikitze prozesuan, oinarritzko eskubideak jasotzen dituen tresna juridiko idatzirik ez dagoen bitartean, nola ziurtatzen dira giza eskubideen errespetu eta aplikazioa, batez ere Estatuaren Auzitegi Konstituzionaleri araudi komunitarioa inposatzen zaienean?

7.4. Justizia Auzitegia, Auzitegi Konstituzional gisa

Zuzenbide Komunitarioaren Konstituzionalitate kontrola deuseztapen helegitearen bitartez egiten da (Tratatuko 173. artikuluan aipatzen dena), Batasuneko Instituzioek emandako egintzen baliogarritasunaren azterketa aurrejudizialaren bitartez (Tratatuko 177. artikulua), eta xedapen orokorren legaltasun kontrolaren bitartez (Tratatuko 184. artikulua).

17. Simmenthal Asuntua Komisioaren aurka, 78/92 Kasua. 1978.3.9ko Epaia; Factortame I Asuntua, 89/213 C Kasua. 1990.6.19ko Epaia; Handelsgesellschaft Asuntua, 78/11 kasua; Hauer Asuntua, 79/44 Kasua, 1979.12.13ko Epaia.

18. A.K.F.(Auzitegi Konstituzional Federala)ren 1989.5.12ko autua

19. PALACIO GONZÁLEZ, J. Komunitate mailan emandako Jurisprudentzia Konstituzionala eta partikularren babesa. In: *Herri-Arduralaritzazko Euskal Aldizkaria*, 42. alea, Oñati: HAEE, 1995; 93, 105 eta 106. orr.

7.4.1. Nulitate edo deuseztapen helegitea

Berau tarteratzeko legitimazio aktiboa dute hiritar partikularrek, pribilegiarik gabeko subjektu bezala, zuzenki eragina izan baldin badute, honi buruz jurisprudentziaren interpretazioak erabat ezberdinak izanik.

Berdeen Epaia-ren ondorioz, oinarritzko eskubideen babeserako beharrezkoa denean, hiritar partikularren legitimazioa bermatuta geratzen da.

7.4.2. Aurrejudiziozko gaiak

Honen arabera, Estatu bateko auzitegi batek ez dauka egintza komunitario baten baliogabezia deklaratzeko ahalmenik, ahalmen hau Justizia Auzitegiarena delako eskusibotasunean.

Beraz, Estatu bateko auzitegi batek egintza komunitario baten balioarritasuna dela eta zalantzak izango balitu, aurrejudizio azterketa planteatu beharko luke Justizia Auzitegiaren aurrean.

Baina kontua da Justizia Auzitegiak Zuzenbide Komunitariotik kanpo dauden gai garrantzitsuak (berma prozesalak, Giza Eskubideen Babeserako Europako Itunean dauden oinarritzko eskubideak...) kontrolatu eta babestuko dituen ala ez, kontuan izanik aurreko atalean azaldutakoa. Auzitegi honek emandako epaietan, *Cinethèque* eta *Demirel* asuntuetan²⁰, erabat ezkorra izan da. Hauetan, argi adierazi du berari ez dagokiola Estatukideek aipatutako Itunean aitortzen diren funtsezko eskubideak errespetatzen dituzten ala ez ikuskatzea.

Autore batzuen ustez, komenigarria izango litzateke EB Giza Eskubideen Babeserako Europar Itunera atxikitzea, horrela Strasbourgeko Auzitegiak gai honi buruzko epaietak ezagutuko bailituzke, eta horrela hiritarrek babes juridikoa izango lukete²¹.

8. Ondorio gisa

8.1. Marko politikoa: Europako Batasuna

Europako Batasunaren Tratatu indarrean sartzean, 1993ko azaroaren 1ean, Europako

Erkidego Ekonomikoa Europako Batasun bihurtzen da, hiru zutabetan oinarrituta:

1. Lehenengo zutabea komunitarioa da, CECA, EURATOM eta CEE Tratatuez osatua.
2. Bigarren zutabea, Kanpo Politika eta Segurtasun Komunekeko PESC deritzonaz osatua.
3. Hirugarren zutabea, Justizia eta Barne gaietako Lankidetzarena da.

Bi zutabe horiek komunitariotik at egotearen arazoia zera da, hainbat Estatu ez dagoela prest Europako Batasunari gai horietan eskumenak igortzeko, esparru horretan erabakiak gehiengo batez onartzen baitira, eta gobernuen arteko lankidetzan, aldiz, aho batez. Horrela erabiltzen diren tresna juridikoak erabakiak, ebazpenak, gomendioak, egintza edo jarrera komunak, eta konbentzioak dira.

Europako Legebiltzarrak bigarren eta hirugarren zutabeetako gaiak direktiba eta erregelamenduen bitartez arautzea galdatu du, hau da, europar araudiaren bitartez, Europako Batasunaren ahalmenak baitira.

8.2. Zigor Zuzenbidea, substantibo zein prozedurazkoa kanpo

Europako Batasunak ez du inolako ahalmenik Zigor Zuzenbidean edota zigor prozeduran. Schengen eta Maastrichteko Itunen negoziaketek argi adierazi dute Estatuak ez daudela gai hauetan amore emateko prest.

Beraz, kontestu honetan, behin eta berriro planteatu izan da "europar gune judicial" baten sorrera, eta bertan behera utzi. Komisioak bere ahalmenen artean sartu nahi du Zuzenbide Komunitarioaren zigor atala, eta hor dago *Corpus Iuris* izeneko zigor prozeduraren araudia.

Edozein kasutan, europar gune polizial eta judicial batek gune politiko komun bat galdatzen du eta hori oso urrun dago oraindik.

8.3. Gabezia demokratikoa

Europar Hitzarmenak izan duen sorrerak, Estatuaren arteko lankidetzaren poliziala ezarri

20. *Cinethèque* Asuntua, 84/60 Kasua. 1985.7.11ko Epaia. 2605. or. *Demirel* Asuntua, 86/12 Kasua. 1987.11.30eko Epaia. 3719. or.

21. DYRBERG, P. Europar Zuzenbide Publikoaren batasunerako tendentziak Europako Erkidegoko markoan. In: *Herri-Arduralaritzazko Euskal Aldizkaria*, 40. alea, Oñati: HAAE, 1994; 81. eta 82. orr.

“ Bere jarduera erabat ezkutu eta konfidentziala denez, europoliziak botere inkontrolatu bat bihurtzeko aukera galanta du ”

5/1992 Lege Organikoa, Pertsonal Mailako Datuen Tratamendu Automatikoa arautzen duena.

Europar Sare Judiziala Sortzeari buruzko Ekintza Komuna, Brusela, 1998ko ekainaren 29koa.

Europako Batasunaren barnean, europar instituzioek inolako kontrolik egiteko aukerarik gabe –ez Legebiltzarrak, ez eta Justizia Auzitegiak–, izugarritzko gabezia demokratiko duela esan beharra dago.

Honekin batera, bere jarduera erabat ezkutu eta konfidentziala denez, europoliziak botere inkontrolatu bat bihurtzeko aukera galanta du, honek suposatzen duen arriskuarekin.

Azkenik, eta arrisku hau biribiltzeko, Europolen organo eta kideek dituzten immunitate eta pribilegioak aipatu behar ditugu, benetako inpunitatea sortuz.

Eta, hau guztia, Europar Hiritarren Oinarrizko Eskubideen Aitorpena falta delarik. Galdera litzateke: nondik ari dira Europa eraikitzen, polizial gune bateratu batetik, geroxeago gune judiziala sortuz? Ez al litzateke Europar Konstituzio batetik hasi behar?

Burutazio hauek guztiek agerian uzten dute Europa eraikitzeko modu hau ez dela batere demokratikoa, eta juristok behintzat berandu izan baino lehen ohartu eta erreakzionatu beharko dugula.

9. Bibliografia

Europol Hitzarmena, Brusela, 1995eko uztailaren 26koa.

Europol Hitzarmenaren Pribilegio eta Immunitateei buruzko Protokoloa, Luxenburgo, 1997ko ekainaren 19koa.

Europol Hitzarmenaren Justizi Auzitegiaren Interpretazio Aurrejudizialari buruzko Protokoloa, Brusela, 1996eko urriaren 9koa.